

## Euzko Gaztedi'k 17 urte

*Euzko Gaztedi*, 1965-09/10: 1.

Euzko-Gaztedi jaio zala emezazpi urte ba dira.

Umetxo bat gizon egiteko ta gizon gazte bat aiton egiteko une-aldia; amets asko betetzeko edo itotzeko aldi luzea.

Zer egin ote degu, ba da, aldi-une onetan?

Orduan Euzkadi katez lotua ba zegoan, oraindik (amets eta guzti) katez lotuta dago; ez degu (asmo bero ugariak kolkoan ibili arren) emezazpi urtean gure erri-egarririk asetu.

Egia esan, urtez zartu basterik egin ez ote geran galdetzen diot nereari askotan.

Bañan nai genduan jo-mugara eldu ez ba bera ere, ezin genezake alperrik aritu geranik esan. Orduan abertzale gazte giñanok seme abertzaleak ba ditugu, orduko Euzko-Gaztedi jaio-berriak gaur gure semeetan ia gizon egin zaigu, ta bide onetatik gure nai-izatea urbildu zaigula ziur naiz.

Oraingo Euzko-Gaztedi'n dana ondo ez dijoala? Asieran ere ez zan dana zuzen joan. Alkarren arteko arazoak ba dirala? Lenago ere izan genituan gureak.

Aurretik ibili diranen ezperientziaren berri jakitea ona da, ta oraingo ezta-baidak neurritzeko, ordukoak, Euzko-Gaztedi jaio zaneakoak, gogora asi nai dizkizutet gaur emen.

Euzko-Gaztedi au sortzeko asmoetan gabiltzala bi arazo sortu ziran:

BATA, ordurako Caracas'en Alderdi'ko Euzko-Gaztedia eratua zegoala, ta Euzko-Gaztedi izeneko eraketarik ezin genezakela Euzko Alderdi Jeltzale'tik kanpora egin.

BESTEIA, nola Alderdi'ko Euzko-Gaztedi gizonetzkoentzat bakarria sortua izan zan, ezin genikiela guk Euzko-Gaztedi nastu edo mixto bat eratu; ori ia pekatua zala.

Beti bezela, ortodoxuak biatza zerura jasota zeuden.

Gure taldeko arrazoiak oiek izan ziran:

Euzko Gaztedi or dago eratua, bañan ez da Caracas'en euskotar gazteok bear deguna lortzeko gauza. Caracas'eko gaztedia euzko alorrerako gordeko ba degu, aberri lanetan eta jolas lanetan alkar ibili bear dute. Gure emengo Euskal Erri oso'osoa Euzko-Etxe au da ta ta emen gauden gazte guziok bilduko gaitun erakunde bat bear degu; bestela Euzko Etxetik kanpora billatuko ditu bideak, eta sakabanatuko da.

Lehenengoa, Alderdi'tik kanporako Euzko'Gaztediak gertatzeak, lanak eman zizkigun; batzarrak egin ziran, eta iritzi orretakoak irabazi zuten. Ala ere, gauzak bear bezela egiteko, arrazoiz gauzak oñarritzeko, Baiona'ko Euzko Alderdi Jeltzale'ari idatzi, gauzak garbi azaldu ta beren baimena eskatu genion; arrazoiak arrazoi baita nun nai, ta erantzun baietzkoa iran zan.

Gero, alegia neska-mutillentzako eraturako alkarte onek alkar dantza lotua egitea eskatzen zuala, bai, ta ori ere Euzko Etxea'ri eskatu genion; berriz ortodoxoak biotza jaso ta zerutik bera berebiziko tximistak bosta zizkiguten, eta batzarretan asarre pranko izan

genitun; baiñan demokratak bezela berriz ere geienak bere baiezkoa eman ondoren au ere ontzat artu zan.

Urteak joan, eta gaur ez zaizkio iñorreri (edo iñor gutxiri) gauz oiek gaizki iruditzen. Baiñan orduan asarreak izan genituen, eta orduan gaurko erakunde au lortzeko alkar zauritu giñan. Gizona neketsu, ta burrukan, aldatzen baita. Baiña nola aldaketa oiek ezer zatitu gabe lortu genitun, gaur ortxe daude, tente, arrazoiz eta errespetoz oñarritzen diran gauzak irauten duten bezela.

Gaurko Eusko Gaztedi'an ere iritxi ez berdiñak ba dirala esan dirate.

Au osasungarri da; ta abertzaletasuna buru dezutela jokutzen ba dezute, orain dala emezazpi urte gauzak konpondu genituan bezela oraingoak ere konponduko dituzute.

Orduko ezperientziak ezertarako balio ba du, kontseju bat emango nizueteki; alkarri entzun akiozute eta alkar errespetatu zazute; gero erabakiak geienen-gain artu ta aurrera jo, banatzen gaituanak baiñan alkartzen gaituanak indar geiago du ta.

Ta ez astu: areria asko dago aurrean, gu alkar il zai.